

<b>JARDUKETA IZENA:</b>	<b>Itsas lanproia, proiektuko ekintzek haren populazioarengan zer-nolako eraginkortasuna duten ebaluatzea</b>
	<b>D8 Itsas lanproiaren jarraipena</b>
<b>Zer KBEtan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun:</b>	
<b>Bidasoa Ibaia KBE</b>	
<b>LOTURA NATURA 2000ekin</b>	
Ekintza KBEak Kudeatzeko Planen helburu operatibo hauen baitan kokatua dago:	
5.1.1. Izokin arruntaren, kolakaren, itsas lanproiaren eta burtainaren kontserbazio egoera hobetzea.	
<b>KBEko funtsezko elementu onuradunak</b>	
<b>Itsas lanproia</b> "Bidasoa Ibaia" KBEan izendaturiko funtsezko elementuetako bat da, eta ibaian dauden oztopo gaindiezinak dira haren kontserbazioa baldintzatzen duten faktore nagusia.	
<b>JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:</b>	
Bera, Lesaka	
<b>Data</b>	
<b>2017-2018</b>	
<b>Aurrekontua</b>	
<b>26.056 €</b>	
<b>Proiektuaren ekintza loturikoak</b>	
Espeziearen beharrak eta haren egungo kokapen geografikoa ikusita, loturirik handiena duten kontserbazio ekintzak C6 "Endarlatsa iragazkortzea" eta C7 "Bera iragazkortzea" dira.	
<b>Lanaren deskribapena - HELBURUAK</b>	
Jarraipen ekintza honen helburua itsas lanproiaren eraginkortasuna neurtzea da; horretarako, espeziearentzat egokiak diren Bidasoa ibaiaren tarte batzuetan (ziur aski proiektuko ekintzek ukituko dituzten haietan) alderatu eginen ditugu ugalketa-adierazle batzuen hasierako eta bukaerako balioak.	
<b>Lanaren deskribapena - AURREKARIAK</b>	
Itsas lanproia espezie migratzailea da, ibaietan jaiotzen da, eta haietan igarotzen da bere larba-bizitza, harik eta forma heldua hartzen duen arte. Helduak itsasoan bizi dira, 20tik 30 hilabetera bitarte, 200 edo 300 metroko sakoneran, batez ere arrainak parasitatu, eta heldutasun sexualera iristean, ibaietara itzultzen dira ugaltzeko. Ibaian goitiranzko migrazioa otsailean hasi, eta maiatzera arte irauten du. Nafarroan, lanproia Bidasoan baizik ez dago. Nasako tartean bazegoela gauza jakina bazen ere, 2013an eginiko azterlanean egiaztatu zen ale batzuek Nasako presa gainditzen dutela, ziurrenera 2007an bertako eskala moldatu izanari esker. Halaber, San Martin presaren azpian lanproi habi bat aurkitu zen lehen aldiz, eta oraingoz, toki hori da espeziearen muga Bidasoan goiti.	
<b>Lanaren deskribapena – HASIERAKO ETA EGUNGO EGOERA</b>	
<b>Lanaren deskribapena – JARRAIPENEN DESKRIBAPENA</b>	
Ekintza honen <b>metodologian</b> bi jarraipen eginen dira:	
1) Ugalketa jardueraren jarraipena egitea: arraba-habiak eraikitzen dituzten bitartean, arraba-lekuetan finkaturiko heldu ugaltzaileen behaketa eta zenbaketa ginez.	
2) Udazkenean, larben berriazko jarraipena eginen da, hazkuntza tokietan lurperaturiko larben presentzia eta ugaritasuna neurtzeko.	

Teknika horien bidez, **adierazle hauek** kalkulatu dira:

- Ugalketak ibaian hartu dituen kilometroak.
- Habi dentsitatea, guztira, eta azpitarteen arabera.
- Ikusitako lanproi ugaltzaileen indizea.
- Larben ugaritasuna (CPUE, larbak/m<sup>2</sup>).
- Larben egitura demografikoa.

**Azterlanaren esparruari** dagokionez, lanak eginen dira "Bidasoa Ibaia" KBEko ibilgu nagusiaren behe tarte guztian, gutxienez 1993tik baitago tarte horretan. Barne dago Berako San Martin presatik gorako tartetik, Nafarroa, Gipuzkoa eta Frantzia arteko mugara bitarte (presa hori C7 ekintzan eraitsiko da).

Jarraipenaren **denbora banaketari** dagokionez, planteamenduak oinarri du alderatzea hasierako egoera edo lanen aurrekoa eta bukaerako egoera edo lanen ondokoa.

### JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? – ESPERO DIREN EMAITZAK

Emitza hauek espero dira:

- Aipatu adierazleen hasierako eta bukaerako balioa ezagutzea (ugalketak ibaian hartzen dituen kilometroak, habi dentsitatea guztira, eta azpitarteen arabera, ikusitako lanproi ugaltzaileen indizea, eta larben egitura demografikoa).
- Kontserbazio ekintzen eraginkortasuna baloratzea, hasierako eta bukaerako ebaluazioak alderatuz.



